



## Arantzazuko Anaidia urritzen, baina...

Adiskide zaretenok jakin behar duzue errealismoak nolako argazkia uzten duen fraideen artean; bereziki Arantzazuko Anaidian. Zuek borondate onez eta zuen laguntza estimagarriz sustatzen duzuen Santutegi honetako fraideek ilusio bakarra daukate: Santutegi honen erreferentzia bizirik eta indarrean mantentzea, denboraren joanean.

Baina errealtateak bere pisua erakusten du: garai batean artean indarrean ezagutu zenuten fraide-elkarte hau gutxitzen ari da, bokazioen urritasunak hartara bultzata. Gaur bertan 28 fraidek osatzen dute Arantzazuko anaiartea. Horietatik dezente gaixoak dira edo adinaren pisuz makurtuak. Beren bizitzan atse-denerako eta zaintzarako eskubidea irabazia dute, eta ahalegin guztia egiten da horiek arduraz zaintzen.

Hala eta guztiz ere, denon ahalegin apalari ilusioz eusten zaio Arantzazuko Anaidian. Batez ere, igande-

roko eskaintza mimos eta gozotasunez zaintzen da. Meza Nagusira oraindik ere jende asko biltzen da, eta haiei egiten zaion eskaintzak kalitatezkoa izan nahi du. Orain bi urte hasitako proiektu soziala indarrean mantentzen dugu, eta pozik. ELKARREKIN BILA proiektuak aurrera darrai. Aurten dagoeneko zortzi talde pasa dira eta beste bi gelditzen zaizkigu urtea burutzeko.

Beste lan askoren artean, komunikabideetako lana ere egiten da: Irrati-Telebista, aldizkaria, erreportaiak... Erljiosei Gogo-jardunak edo erretiroak ematen ere saio dezente. Asis Topaguneak bere batzarrak eta Gogo-jardunak zaintzen ditu eta sustatzen. Gandiaga Topaguneko lanak ere bere martxa darrai. Urteroko Egutegia egiten da. Edizio Frantziskotarren Argitaletxeak ere osasun-une ona bizi du.

Arantzazuko Anaidia urritzen ari da, baina ez dio bere misioari muzin egin nahi. Zuen laguntzarekin!

## Arantzazuko berriak

### Omenaldia Sáenz de Oíza eta Laorga arkitektoei

Pasa den irailaren 12an, Arantzazuko Gandiaga Topagunea kultur zentroan, Arantzazuko Basilikaren arkitektoek omenaldi sentitua jaso zuten, aurten eraikinak 60. urteurrena bete duela-eta. Oroitzapen-jardunaldira 350 lagun inguru etorri ziren, eta Francisco Javier Sáenz de Oíza eta Luis Laorga arkitektoen familiarteko ugari. Arantzazuko frantziskotarrek, Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak mahai-inguruan bildu zituen, arkitektoen alderdi pertsonalari eta profesionalari buruz jarduteko, Rafael Moneo Pritzker Saria (Sáenz de Oíza-ren estudioan hasi zen lanean arkitektura-ikasketak egiten ari zela), Javier Sáenz Guerra eta Enrique Arenas (Sáenz de Oíza-ren eta Laorgaren semea eta biloba, hurrenez hurren). Horren ondoren, bertaratuak Basilikara jaitsi ziren Nafarroako Arkitektura Eskolako zuzendari Miguel Ángel Alonsok eraikinaren gainean egindako irakurketa entzuteko. Xabier Lizaso piano-jotzailearen emanaldi laburrak lagundu zuen azalpena.

Bestalde, Arantzazu aldizkariak omenaldiari bere ekarria egin nahi izan zion, eta horretarako arkitektoei espresuki eskaintako monografiko berezia prestatu zuen. Irudi askoko argitalpen honek, besteak beste, honako gaiak jorratzen ditu: Arantzazuko Basilikaren his-

toria bi zatitan, Ama Birjinaren agerralditik 1950era eta 1950etik 1955era (Basilika eraiki zen aldia); Sáenz de Oíza eta Laorgaren biografiak eta eraikinik esanguratsuenak; arkitektoen alderdi pertsonala lantzeko, familiartekoek oroitzapenez jositako testu bana idatzi zuten, maitasunez; Sáenz de Oíza-ren babesean arkitekto egin zen Rafael Moneori egindako elkarrizketa, eta Javier Garrido frantziskotarrak eraikinaren gainean egindako irakurketa estetiko-kritikoa. Monografikoa Arantzazuko dendan eta Donostiako Idatz liburu-dendan eskura daiteke.

### Musika Hamabostaldia: Jordi Savall

Musika Hamabostaldiak aurtengo ekitaldian Arantzazuko Basilikarako gorde zuen kontzertuak Jordi Savall biola-jotzailea eta antzinako musikan aditua ekarri zigun. Abuztuaren 24ko emanaldiari hasiera eman zion Orfeoi Gazteak lauzpabost pieza interpretatuz. Haiek amaitzean taularatu zen Savall, beste bi laguntzailerekin, eta musika zeltiarraren zaleak aho bete hortz utzi zituen. Esker onez, protagonistek publikoaren txalo-zaparrada jaso zuten. Musika Hamabostaldiak Arantzazun urtero-urtero antolatzen duen kontzertua Santutegian izaten den ekitaldirik garrantzitsuenetakoa da kultur mailan, zalantzarik gabe. Eskertzekoa da Musika Hamabostaldiak Arantzazuren alde egiten duen lana.

## Arantzazuko berriak

### “Xavier Álvarez de Eulate» III. Pintura-lehiaketa

Irailaren 12an Arantzazuko “Xavier Álvarez de Eulate» Pintura-Lehiaketako hirugarren ekitaldia hartu zuen arrakasta handiz; aurten, Sáenz de Oíza eta Laorga arkitektoei omenaldia egiteko antolatutako ekintza-programari lotua. Arantzazuko Adiskideak elkarteak Arantzazu Gaur Fundazioaren laguntzaz antolatutako lehiaketak, hamaika lekutatik iritsitako 28 parte-hartzaile izan zituen helduen kategorian, 31 hurrenean eta bost gazteenean. Epaimahaiak, Edorta Kortadi arte-kritikoak, Luis Lascurain pintoreak eta Miguel Ángel Alonso arkitektoak osatua, iaz bezala, Lehen saria Erandioko José Miguel Arranz-i eman zion (1.500€) eta Bigarrena Ermuko Jon Idigorasi (750€). Hirugarrena Bergarako Juan Jose Altunak eskuratu zuen (400€). Gazteen mailan Legazpiko Ane Urzelai eta Donostiako Andrea Goikoetxea izan ziren saritua, eta hurren artean Oñatiko Maddi Elorza eta Iruñeko Martín de la Iglesia. Horiek denek pintura-material sorta bana lortu zuten.

Ekitaldi honetan, eta Basilikaren 60. urteurrena zela-eta, Sáenz de Oíza eta Laorga Sari Berezia izan zen eraikinarren arkitektura egokien irudikatu zuen parte-hartzailearentzat. Plentziako Leticia Gaspar izan zen irabazlea (1.500€).

Saritutako koadroak, nahiz beste denak, ikusgai izango dira urriaren 10etik azaroaren 1era bitartean Gandiaga Topagunean. Erakusketa asteburuetan eta jai-egunetan egongo da zabalik 11.00etatik 14.00etara, eta sarrera doakoa izango da.

### Mantenimendu-taldearen lana

Ezin eskertuzkoa da, zinez, Arantzazura hilean behin edo bitan auzolanean aritzeko etortzen den taldearen laguntza. Orain arte garbiketako eta mantenimenduko lan desberdinak egin dituzte (Sindikatik Arantzazuko sarreran dagoen kapera arteko bazterrak eta espaloiak garbitu, Gandiaga Topagunea inguruko bideak garbitu, Misterioko eta Gandiaga Topaguneko aterpeko kristalak garbitu, Gandiaga Topagunea inguruko belardiak moztu eta jaso, eta Basilika eta Kripta garbitu eta komentuko zenbait gune). Taldearen hurrengo hitzordua urriko larunbat batez izango da, baina ez dugu data oraindik zehaztu. Adiskideren batek etortzeko interesik izanez gero, deitu edo idatzi dezala behealdean ageri diren telefonora edo posta elektronikora. Zenbat eta gehiago izan, ordua eta hobeto.

### Mendi-irteerak 2015

Arantzazuko Parketxearekin elkarlanean, Arantzazuko Adiskideak elkarteak bete du ia-ia 2015erako prestatutako mendi-irteeren programa. Urte honetarako antolatutako sei ibialdietatik bakarra falta da. Urriaren 18an, goizeko 9.00etan Parketxetik abiatuko da taldea Zurkutzetik Malkorarako bidea egiteko. Gainontzeko bost irteerak bezalaxe honakoa ere tematikoa izango da, eta mendi horien ertzak aztertzeak aukera izango dute parte-hartzaileek. 2015ean zehar egin diren beste ibiladiak eta horietan ikasitako gaiak honakoak izan dira: Uraren bidea – Uraren jatorria eta erabilera; Belar-Biozkornia – Ama Birjinaren “aulkia”; Urbia-Oltza – Artzainen bidea; Arantzazu-Aloña – Mendia ilunabarrean; eta Urriagain-Biozkornia – Kataberako meategiak.

## Errukiaren Jubileua laster

Gauza jakina da nola Aita Santu Frantziskok deitua duen Errukiaren Jubileua Abenduko 8tik datorren urteko azaroaren 20ra arte. Abenduaren 8an irekiko da Erroman Urte Santua eta beste elizetan, berriz, abenduaren 13an. Hori dela eta, Elizbarruti bakoitzak eliza esanguratsu batzuk izendatzen ditu Jubileuaren ospakizuna bere baldintza guztiekin bizi ahal izateko. Eta Gipuzkoako Elizbarrutiak, Donostiako Katedralaz gain, Loiolako eta Arantzazuko Santutegiak izendatu ditu.

Aurtengo abenduaren 13an, beraz, Elizbarrutiko Gotzainak eguerdiko Meza Nagusian Urte Santua estreinatuko du Arantzazun. Jubileu hori dela eta, ekintza berezi batzuk burutuko ditugu, edo egiten ditugun ekintza batzuei garrantzi berezia emango zaie:

- Aitortza sakramentuak era berezian azpimarratuko du Jubileuaren edertasuna.

- Meza Nagusiaren hasiera –Damu-otoitza– gune berezian eta modu deigarrian egingo dugu, Gurutze Santua kokatua egongo den leku bereziki prestatuan.

- Liturgi urte sasoi indartsuetan –Abendua, Garizuma, Pazkoa– otoitzaldi berezi bana antolatu nahi dugu. Otoitzaldi hauek ongi prestatuak izateaz gain, giro isil eta sakonean egin nahi ditugu, nolabaiteko sen diferentea erakutsiz. Gazteenentzat ere baliozkoak izatea nahi genuke. Egun zehatzak bere garaian adieraziko dira. Adiskideak hemen ikustea ederra izango litzateke, noski!

Ea denon artean Urte santu eta ederra burutzen dugun!

Hurrena arte, besarkada.